



**TXINGUDI IKASTOLAKO GURASOEN
ELKARTEA (AMPA)**



Kaixo denoi, Olentzero naiz.

Dakizuen bezala datorren
Abenduaren 24ean Ikastolako
Guraso Elkarteak antolatuta
kantatzera aterako zarete.

Esan didate hitzordua 16:30tan
izango dela Pío XII plazan. Bertatik
Luis Mariano, Zabaltza plaza eta
Kolon pasealekuan barrena Oiasso
Museora hurbilduko zarete
Urdanibia plazan bukatzeko. Han
19:30ak aldera **TXOKOLATADA**
izango duzue.

Abenduraen 13an entsegu bat egingo
da Palmera-Monteron arratsaldeko
7,30tan.

Anima zaitzte!

Laster arte...

Hola, soy Olentzero.

Como ya sabéis la Asociación de
Padres-Madres de la Ikastola, ha
organizado para el próximo 24 de
Diciembre un acto para salir a
cantar.

Me han dicho que la cita es a las
16:30 en la plaza Pío XII. Después
iréis a Luis Mariano y plaza del
Ensanche hasta el museo Oiasso para
terminar en la plaza Urdanibia
sobre las 19:30, En la plaza tendréis
una **TXOKOLATADA**.

El 13 de Diciembre a las 7,30 de la
tarde haremos un ensayo en Palmera-
Montero.

¡Os esperamos eh!

¡Animaos!

Hasta pronto...



GABON KANTAK 2019 *TXINGUDI*

1) OLENTZERO

Olentzero joan zaigu mendira lanera intentziuarekin ikatza egitera. Aditu duenian Jesus jaio dala lasterka etorri da berri ematera

Horra, horra gure Olentzero pipa hortzetan duela eserita dago. Kapoiak ere baditu Arraultzatxuekin bihar meriendatzeko botil arduakin.

Inolaz ezin dugu Olentzero ase bakarrik jan dizkigu hamar txerri gazte. Saiheski ta solomo makina bat este Jesus jaio da eta alaitu zaitezte.

Horra horra...

Olentzero Buru haundia entendimentuz jantzia bart arratsean edan omen du hamar arruko zagia Ai urde tripaundia Tralaralala, tralaralala Ai urde tripaundia Tralaralala lala la (bis)

2) HATOR HATOR

Hator hator lagun etxera Gaztainak zimelak jatera Gabon gaba ospatuzeko Aitaren ta amaren ondoan. Ikusiko dek aita barrezka Amaren poz atseginez.

Eragiok lagun Aurreko danbolinari, Gaztainak erre artian Gaztainak erre artian Txipli, txapla, pun Gabon gaba pozik igaro daigun.

3) HORRA MARI DOMINGI

Horra Mari Domingi begira horri Gurekin nahi duela Belena etorri Gurekin nahi badezu Belena etorri Atera beharko dezu gona zahar hori

Hatoz hatoz zure bila nenbilen ni! Hatoz hatoz zure bila nenbilen ni! Hatoz goazen ta agurtu dezagun Belenen jaio den haur eder hori Haur eder hori!!

ALAKEN

Alaken, alaken, ala pikula tun paire, errespundela pikula tunpa Jesus Maria Jainkoa zen. (bis)

Adiskideok! Ikusi duzue zelai horietan artzaina, artzain txiki, artzain handi, artzain mutur leuna. Alaken, alaken...

4) DIN DAN DON

Din dan don, din dan don Eguberrion! Zorion zorion! Gabonak , din dan don Din dan don din dan don Eguberrion! Zorion zorion! Gabonak Gabon!

Izar bat hasi da, dizdizka zeruan Berri onak zabaltzen ari zaigu mundua. Jaio da jaio da, Jaunaren semea, Askatxo batean dago, lastoen gainean.

Din dan don...

Aingeruak kanta, artzain onak dantza, Jainkoaren jaiotzan Pakea eta Haintza! Astoak aja-ja! Idiak, muu-muu! Estalpe zaharrean kantuan ari zaizkigu.

Din dan don...

Antxon eta Peru , artzain buruzuri, Izarrari jarraika biak datoz arinka. Menditik barrena, haurtxoarengana, Artzain bakoitzak darama arkumetxo bana.

Din dan don...

5) KAX KAX ATEAN

Kax kax kax atean. Nor dabil etxean? Ikusi makusi Nor naizen ikasi. Praka zabalak atorra urdina. Ai ene ez dakit ezer ez ez ez ai ene kontatu mesedez.(BIS)

Kax kax kax atean. Nor dabil etxean? Ikusi makusi Nor naizen ikasi. Mutur zikina Txapela beltza.

Ai ene ez dakit ezer ez ez ez ai ene kontatu mesedez(BIS)

Kax kax kax atean. Nor dabil etxean? Ikusi makusi Nor naizen ikasi Pipa ahoan Ardoa bertan.

Bai, bai, bai lehen orain eta gero Zu zara gure olentzero. Bai, bai, bai lehen orain eta gero Zu zara gure olentzero.